

Ikasgelako liburutegia: antolaketa, kudeaketa eta jarduerak

Autores: Orzanco Burguete, Leire (Diplomada en Educación Primaria y Licenciada en Psicopedagogía., Profesor de educación Infantil); Sagastibelza Zabaleta, Aintzane (Maestra, Especialidad en Educación Primaria, Maestra Educación Infantil).

Público: Educación Infantil. **Materia:** Global.

Título: Ikasgelako liburutegia: antolaketa, kudeaketa eta jarduerak

Resumen

Haur literatura funtsezkoa tresnatzat kontsideratzen dugu Haur Hezkuntzako etapan. Hurrek ipuinen bidez, enpatia, alaitasuna, laguntasuna, naturarekiko eta lagunekiko maitasuna, sentimenduak identifikatzen eta beste hainbat aspektu lantzen laguntzen digutelako. Azken finean, Haur Literaturak haurren garapen afektibo, sozial, artistiko, psikologiko eta kognitiboa garatzen laguntzen gaitu.

Recibido 2015-10-13; Aceptado 2015-10-17; Publicado 2015-11-25

SARRERA

Haur literatura funtsezkoa tresnatzat kontsideratzen dugu Haur Hezkuntzako etapan. Hurrek ipuinen bidez, enpatia, alaitasuna, laguntasuna, naturarekiko eta lagunekiko maitasuna, sentimenduak identifikatzen eta beste hainbat aspektu lantzen laguntzen digutelako. Azken finean, Haur Literaturak haurren garapen afektibo, sozial, artistiko, psikologiko eta kognitiboa garatzen laguntzen gaitu.

Hori horrela izanik oso garrantzitsua ikusten dugu liburutegi txokori behar duen garrantzia ematea. Tankera honetan, espazioaren aukeraketa egokia, materialen aukeraketa egokia, argitsua izatea, eroso sentitzea, atsegina izatea eta ondo antolatua egotea beharrezkoa izango da.

LIBURUTEGI TXOKOA ONGI ANTOLATZEKO...

Liburutegi Txokoa gela barruan non kokatu erabakitzeke, kontuan izan behar ditugun aspektuak hauek dira;

- 1- Argi naturala egotea komenigarria da.
- 2- Espazio handia izatea, txokoa kuxin, eserleku, koltxoiez, alfonbraz hornitzea. Haurrak eroso sentitzeko.
- 3- Zarata handirik ez egotea, lasaitasuna bilatuz.
- 4- Materiala ongi sailkatua egotea, bertan eskaini dezakegun materiala:
 - a. Ipuinak
 - b. Aldizkariak
 - c. Egunkariak
 - d. Postalak

- e. Komikiak
- f. Liburu entziklopedikoak
- g. Errezeta liburuak
- h. Propaganda
- i. Ikasleen izenak eta abizenak
- j. Hizki solteak
- k. Letra magnetikoak
- l. Arbela bat
- m. Paper txuriak/koadernoak...
- n. Klarionak/arkatzak/boligrafoak/rotuladoreak

Materiala aukeratzeko orduan ez dugu ahaztu behar zeintzuk izango diren gure hurren ezaugarriak eta horiek kontuan hartuz ipuinak, komikiak, aldizkariak eta bestelakoak haien adinari, hizkuntzari eta garapen ebolutiboari egokituak egon beharko dira. Liburutegi txokoa hurren adina handitzen joan ahala, bertako materialak ere anitzagoak, konplexuagoak, eta osatuagoak izango dira. Horrela, hiru urteko liburutegiak ezin du bost urtekoen material berdina eskaini.

LIBURUTEGI TXOKOAN AURRERA ERAMATEKO JARDUERAK

Kontuan izanda zein den gure eskolaren egoera eta liburuak nahiko garestiak direla, hona hemen liburutegia osatzeko aurkezten dugun proposamena: gela barruan **liburu mailegutza** bat sortzea.

Horretarako, gabonekin lotuz, Olentzerok ikasle bakoitzari liburu bat utzi beharko dio etxean. Ipuinak ez errepikatzearren formula desberdinak eramango ditugu aurrera: Aukera bat da, gurasoei ipuin zerrenda bat ematea, bakoitzak bat aukeratzea, hori erostea eta eskolara ekartzea. Beste aukera bat izan daiteke, irakasleak denak erostea, guztien prezioak batu eta haur kopuruaren artean banatzea, modu honetan, denek kopuru berdina ordainduko dute. Gelako ordezkaria guztien dirua hartu eta irakasleari emateaz eta liburuak banatzeaz arduratuko da.

Ondoren, eskolara bueltatzen garenean, ume bakoitzak bere ipuina gelara ekarri eta beste ipuinengatik desberdintzeko gometsa bat jarriko diegu. Kontuan izanda gela bakoitzean gutxi gora behera 25 ikasle inguru dituela, urtarrilerako liburutegia ondo hornituta utziko dugu eta umeek ekarritako ipuin horiek gelan irakurtzen eta lantzeari ekingo diogu. Komenigarria da mailegutza ipuin guztiak gelakoetatik bereiziak egotea. Horrela, mailegutza egiterako orduan, hurrek garbi daukate ze liburuaren artean aukera dezake.

Etxean irakurketa potentziatzeko helburuz, haur bakoitzak ostegunero, berak aukeratutako liburu bat eramango du etxera gurasoekin irakurtzeko eta astelehenean eskolara bueltatu beharko du. Aukeraketa hauek guztiak erregistro orri batean zehaztu egingo ditugu, eta erregistroaren orria zailtzen eta sakontzen joango da adinarekin batera: Hemen erantzen ditugu maila bakoitzeko erabiliko ditugun erregistro orriak:

ERANSKINA 1

IPUINAREN IZENBURUA

IZENA	ERAMAN	EKARRI	LIBURUAREN AZALAREN PLANTILLA EDO ARGAZKIA

ERANSKINA 2

IZENA:

ZENBAKIA	IZENBURUA	ERAMAN	EKARRI

ERANSKINA 3

IKASLEAREN IZEN-ABIZENA:

DATA:

LIBURUAREN IZENBURUA:

GARAIZ EKARRI DU : BAI EZ

IPUINAREN PERTSONAI NAGUSIEN ERREPRESENTAZIO GRAFIKOA EGIN:

Irakur-idazketa prozesua lantzerako orduan garrantzi berdina eman behar diogu irakurketa nahiz idazketa prozesuari. Biak eskutik helduta doaz eta funtsezkoa da bata bestearekin batera lantzea. Hori horrela izanik, liburutegi txokoan, irakurtzeko materialak izateaz gain, idazteko materialak ere izan behar dituzte eskuragarri eta idazketaren inguruko jarduerak ikasleei proposatu.

Idazketa prozesua lantzen dugunean ohitura handia dugu banaka egiteko. Haurrak banan-banan esertzen ditugu haien izena, abizena, izenburua bat, hala dena delakoa idazteko, baina ez dugu ahaztu behar, idazketa prozesua binaka nahiz taldeka lantzea oso tresna erabilgarria dela ez bakarrik irakur-idazketa prozesurako, jarduera honen bitartez, bion arteko eztabaida, testuaren aukeraketa, lagunak egiten duen lanaren onarpena... lantzeko aukera ematen digu.

Horrela, **idazketa prozesua lantzeko** banaka, binaka, nahiz talde txikitik aurrera eraman daitezke jarduerak batzuk proposatzen dizkizuegu:

1-Haurrak binaka eseri, paper eta arkatz bana eman eta bion artean aurretik landutako ipuinaren inguruko izenburu bat asmatu eta idatzi egin beharko dute. Prozesu guztia bion artean erabaki eta ekoiztu beharko dute. Haien artean eztabaidatuz, testua aukeratuz eta bion artean idatziz.

2-Talde handian ipuin bat kontatu eta ondoren haurrak binaka ipiniz, entzundako ipuinaren pertsonai nagusien errepresentazio grafikoa egingo dute paper handi batean, irudi bakoitzari dagokion izena, izenburua ala deskribapena eginik, adinaren arabera eskaera mota batekoa izango da. Kasu honetan ere, arkatz bat izango dute eta bion artean zer idatzi erabaki eta idatzia egingo dute.

3- Talde handian sukalde tailerrean burutuko dugun errezetaren irakurketa eta azalpena. Ondoren, talde handian ere, beste errezeta berri bat sortu eta idatziko dugu. Beste aukera bat da, talde txikitari errezeta desberdinak lantzea eta ondoren horiekin guztiekin liburuxka bat sortzea eta hau ere liburutegi txokoan ipintzea.

4- “Udako Liburua” sortzea. Haur bakoitzak etxetik udan bizitutako momentu atsegina baten argazkia ekarriko du gelara. Banaka haur bakoitzak argazki horren inguruko informazioa idatziko du argazkiaren azpian arkatzez. Ondoren, orri guztiak elkartu, denen artean azal bat sortu eta liburuaren itxura emango diogu, hau ere liburutegian utziko dugularik.

Garrantzitsua da, haurren urtean zehar egindako idatzian aldaketak eta zuzenketak egiteko aukera izatea. Horregatik, haurrei, arkatzez idaztea eskatuko diegu. Ikasturtean zehar egin nahi dituzten zuzenketak ala aldaketak egiteko aukera izateko.

Haurren komunikazio maila egokia bermatzeko hizkuntza produzitzea beharrezkoa izango da. Hori dela eta gure jarduerak planteatzeko momentuan, haurrek hitz egitea, parte hartzea eta ahal bezala komunikatzea bilatuko dugu. Haur Literatura oso tresna baliogarria da ahozko komunikazioa lantzeko, jarduera anitzak proposa ditzakegulako, haurrei oro har asko gustatzen zaielako eta haien interesetatik abiatzen direlako.

Ahozko komunikazioa lantzeko aurkezten dizkizuegun jarduerak hauek dira:

1-Bisualki harrigarriak, esanahi handikoak, deigarriak diren argazki bilduma bat izango dugu prestatuta. Irudi hauek egunkari, aldizkari, iragarki etab. desberdinetatik hartuko ditugu. Talde handian borobil handi bat egin eta irudia erakutsiko diezu, galdera bakar hau egin:

- Zer da hemen ikusten duzuen?

Ondoren, haurrek banaka irudi horren inguruan jaso duten informazioa zein izan den kontatuko digu. Haien artean eztabaidatuz, hipotesiak formulatuz etab. Haurrek esaten dizkiguten ideia guztiak baliogarriak kontsideratuko ditugu, ez dugu zuzenketarik egingo, helburu nagusia hitz egitea izango da eta hori da bultzatu behar duguna.

2- “Ipuin-kontalaria naiz.” Jarduera honetan haurrek aldizkarietako irudi desberdinak aukeratu eta moztu egingo dituzte, ondoren horiek talde desberdinetan sailkatuko dituzte: animaliak, pertsonak, garraioak, paisaiak...

Sailkapena egina dagoela, irudiak plastifikatu eta atzean belkro zati bat jarriko diegu.

Etetik hurrek zapata kutxa bat ekarri eta plastika txokoan nahi duten bezala apaindu beharko dute. Ondoren, alde bakoitzean belkro zati bat jarriko diogu.

Bukatzeko kutxaren estalpean, arbelezko materiala bezalakoa den plastiko bat itsatsiko dugu. Bertan hurrek kutxaren laguntzaz asmatuko duten ipuinaren izenburua idatzi ahalko dute.

Jarduerarekin hasi baino lehen, ipuin kontaketaekin lotura duten esamolde edo formulak, nahiz eta eguneroko ipuinean errepikatzen ditugun, berriz ere talde handian landuko ditugu. Hauek dira horietako batzuk:

Ipuinarekin hasi baino lehen:

- Dilin-dalan, dilin-dalan, ipuinaren ordua da, eser zaitezte lagunak, ipuina hastera doa...
- Ipuina patata, ipuina txokolate, ipuina tomate, tomate eta bat, eta bi eta hiru eta lau, ipuina hastera doa. Beraz, begiak ireki, belarriak tente, aho itxita eta isil-isil-isilkan, isilik ez dagoena, kanpora hemendikan hortikan, hortikan...Beraz, begiak zabaldu, belarriak tente, kremlera ahoan eta ipuinaren ordua da.

Ipuinari hasiera ematekoak:

- Behin batean...
- Bazen behin...
- Egun batean...
- Etxe batean/ herrirka batean/ herri batean/ baserri batean
- Orain dela asko...
- Duela bizpahiru ehun urte...
- Arrats batez, gau batez, bertze aldi batez omen ziren...

Ipuinari amaiera emateko esamoldeak:

- Ala bazan ala ez bazan sar dadila kalabazan.
- Ala bazan ala ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Sarrigurengo plazan.
- Egia bada sinets, gezurra bada ez sinets.
- Haiek ondo bizi baziren, gu hobeto bizi gaitez.
- Egia hala gezurra, begi bien erdian sudurra.

Behin ipuinak kontatzeko formulak landu eta ikasi ditugula eta kutxa prest dugula, hurrek sailkatutako irudien artean 4 aukeratu beharko ditu eta kutxaren alde bakoitzean dagoen belkro zatian itsatsiko ditu. Ondoren, ipuinaren izenburua kutxaren estalkian ahal bezala idatziko du eta aukeratutako irudiaz baliatuz, istorio bat asmatu beharko dute. Asmatu berri duen ipuina gela osoari kontatu beharko dio.

Jarduera hauek bideoz grabatu dezakegu, gero denen partaidetzarekin bideo bat sortuz eta denen artean ikusiz.

3-Gelari asko gustatzen zaion eta ezaguna duen ipuin baten laminak sortu ditzakegu. Ondoren laminekin, ahozkotasuna bultzatzeko jarduera desberdinak proposa ditzakegu:

- Laminak desordenatu eta ipuina kontatzen hasiko zara, haiek aldaketaz ohartu eta zuzendu egin beharko dute.

- Haur bakoitzari lamina bat eman, zuk lehenengo lamina kontatzen hasiko zara, hurrengo lamina duena altxatu, erdira pasa eta ipuinari jarraipena emango dio, bere laminari dagokion zatia soilik kontatu beharko du. Horrela, laminen ordena jakiteaz gain, dagokion ipuin zatia ezagutu eta kontatu beharko du.

4- Ipuin baten pertsonai nagusiak aukeratu, haiek txotxongiloetan bilakatu eta ipuina antzerki moduan landu. Esaldiak, errepikakorrak, haien bizitzan erabilgarriak eta haurren hizkuntza mailari egokituak egon behar dira.

ONDORIOAK

Proposamen honen bidez, garbi geratu zaigu zein garrantzitsua den Haur Literaturak duen balioa haur hezkuntzako etapa guztian zehar. Horrela, alde batetik, liburutegia ondo hornitua, antolatua eta sailkatua duen garrantzia landuko dugu ikasleekin. Bestetik irakurketa-idazketa prozesua nahiz aho komunikazioa bultzatzeko, indartzeko eta sakontzeko oso baliogarria zaigu ere, honengatik guztiagatik, gelako antolaketan eta jardueren proposamenetan aintzat hartzeko gaia izango da. ●